

En la Casa Consistorial del M. I. Ayuntamiento de Auritz/Burguete siendo las 8:00 horas del día 9 de enero de 2026, se reunió el Ayuntamiento al objeto de celebrar sesión extraordinaria con la asistencia de los Sres./Sras. Concejales/as D. José Irigaray Gil, D^a. Ana Azanza Burusco y D. Eder Martínez de Miguel, bajo la presidencia del alcalde D. Unai Irigaray Osés, actuando como Secretaria de la Corporación Doña Marisol Ezcurra Irure. Excusa su asistencia D^a. Andrea Juandeaburre Serna,

1.- ACUERDO SOBRE SITUACION RESIDENCIA ERRO

Toma la palabra la concejala Sra. Azanza, que siguiendo con la información dada hasta la fecha en relación con la Residencia Amavir Ibañeta, informa sobre la decisión de la empresa Asistencial Ibañeta que está dentro del Grupo Planiger, gestora de la misma, de dejar su gestión el 20 de enero, así como de la decisión que deben tomar las Entidades Locales de seguir adelante con ella, manteniéndola abierta y siendo gestionada a través de una Sociedad de la que al salir Asistencial Ibañeta, la totalidad del accionariado se asuma por el total de las Entidades Locales que actualmente forman parte. Informa a su vez, que en las numerosas reuniones mantenidas, las condiciones mínimas que los representantes de las entidades locales en la Comisión, consideran necesarias para mantener la residencia abierta, son las siguientes:

- Una alta ocupación en condiciones normales, Gobierno de Navarra debe trabajar para garantizar el 100% de ocupación.
- Aval de construcción, Gobierno de Navarra debe confirmar su cancelación.
- Deuda de la Sociedad, el Grupo Planiger debe asumir el 100% de la deuda.
- Fondo de maniobra, el 100% del fondo de maniobra debería quedarse en los accionistas que se queden en la Sociedad.
- Acciones, venta por parte de Planiger del 64% al resto de accionistas por un precio simbólico de 1 euro.

Debatido el asunto, se acuerda por unanimidad, apostar porque la residencia Amavir siga abierta, siendo asumida por las Entidades Locales siempre que se cumplan los requisitos mínimos mencionados.

2.- ACUERDO FECHA BATZARRE

Se acuerda por unanimidad fijar con fecha para celebración de Batzarre, el sábado día 24 de enero a las 19 h., siendo el orden del día el siguiente:

Elaboración de presupuestos 2026, centenario frontón, creación grupo de trabajo para parque micológico y ruegos y preguntas.

3.- RATIFICACIÓN SOLICITUD XXX DEL APROVECHAMIENTO COMUNAL ASIGNADO A XXX



Toma la palabra el alcalde Sr. Irigaray Osés que dando lectura a la resolución nº 175 de 30 de diciembre que se transcribe a continuación, propone tras informe de la secretaria que explica que lo solicitado no va en contra de la ordenanza de comunales y Reglamento de Bienes de las Entidades Locales de Navarra, ratificar en pleno la mencionada resolución.

“Vista solicitud de XXX para cambio de titularidad de los arrendamientos de Otsamieta y Jauregiaroztegi-Esondoa de XXX a su nombre, como heredero universal de XXXX.

RESUELVO:

1.- Transferir la titularidad de los siguientes arrendamientos de XXX a nombre de XXX:

- *JAUREGIAROTEGI-ESONDOA 19,23 has., polígono 2, parcelas 27,28, 29 y polígono 3, parcelas 107,110 y 111.*
- *OTSAMIETA 1,09 has., polígono 2, parte de la parcela 19 y polígono 3, parte parcela 99.*
- *BORDA DE LOS CARNEROS, de conformidad con el acuerdo de 7 de febrero de 2013.*

2.- Ratificar la presente resolución en el próximo pleno ordinario.”

Tras lo cual, se acuerda por unanimidad ratificar y aprobar la resolución nº 175 de 30 de diciembre de 2026 por la que se transfiere a XXX la titularidad de los arrendamientos de XXX.

Y no habiendo más asuntos que tratar, siendo las 08:45 horas. del mismo día, se levanta la sesión, de lo que doy fe.

Aurizko Udaletxean, 2026ko urtarrilaren 9ko 8:00etan, Udala bildu zen ez ohiko bilkura egiteko. Bertaratuak: José Irigaray Gil, Ana Azanza Burusco eta Eder Martínez de Miguel. Bilkura buru alkatea, Una Irigaray Osés izan zen eta idazkaria, udalbatzarena, Marisol Ezcurra Irure. Andrea Juandeaburre Serna zinegotziak bertaraterik ez duela adierazi du.

1.- ERROKO ZAHAR ETXEAREN EGOERARI BURUZKO ERABAKIA

Azanza zinegotziak hartu du hitza, eta, Amavir Ibañeta zahar-egoitzari buruz orain arte emandako informazioari jarraituz, Asistencial Ibañeta enpresak urtarrilaren 20an bere kudeaketa uzteko hartutako erabakiaren berri eman du. Asistencial Ibañeta Planiger Taldearen barnean dago eta talde hori da hura kudeatzen duena. Era berean, jakinarazi du



toki-erakundeek erabaki behar dutela harekin aurrera jarraitzea, irekita mantenduz eta sozietate baten bidez kudeatuz. Asistencial Ibañeta irtetean, sozietate horretako akzio guztiak gaur egun parte diren toki-erakunde guztiek hartuko dituzte beren gain.

Era berean, jakinarazi du, egindako bilera ugarietan, toki entitateek Batzordean dituzten ordezkariak egoitza irekita mantentzeko beharrezkotzat jotzen dituzten gutxieneko baldintzak honako hauek direla:

- Okupazio handia ohiko baldintzetan. Nafarroako Gobernuak lan egin behar du % 100eko okupazioa bermatzeko
- Eraikuntza abala: Nafarroako Gobernuak ezeztapena berretsi behar du
- Sozietatearen zorra: Planiger Taldeak zorraren %100 hartu behar du bere gain.
- Maniobra-fondoa: maniobra-fondoaren %100 Sozietatean geratzen diren akziodunengan geratu beharko litzateke.
- Akzioak: Planigerrek akzioen %64ren jabe denez, horiek salduko dizkie gainerako akziodunei, euro bateko prezio sinbolikoan.

Gaia eztabaidatu ondoren, aho batez erabaki da Amavir egoitza irekita jarraitzearen alde egitea, toki-erakundeek bere gain har dezaten, betiere aipatutako gutxieneko baldintzak betetzen badira.

2.- BATZARREAREN DATA ERABAKITZEA

Aho batez erabaki da Batzarrea urtarrilaren 24an, larunbata, 19:00etan egitea, honako gai zerrenda honekin: 2026ko aurrekontuak, frontoiaren mendeurrena, parke mikologikorako lan-taldea sortzea eta galde-eskeak.


3.- XXXXXXXXXK XXXXXXXXXRI ESLEITUTAKO HERRI-LURRETAKO APROBETXAMENDUA BERARI EMATEKO EGINDAKO ESKAERA. BERRESPENA.

Irigaray Oses alkate jaunak hartu du hitza eta abenduaren 30eko 175. ebazpena irakurri du. Idazkariak txostena egin du eskatutakoa herri-lurren ordenantzaren eta Nafarroako Toki Entitateen Ondasunen Erregelamenduaren kontra ez doala azaltzeko, eta ebazpen hori osoko bilkuran berrestea proposatu du. Hona hemen ebazpena:

Ikusirik xxxxxxxxk xxxxxxxxxxxxxren Otsamieta eta Jauregiaroztegi-Esondoaren errentamenduen titulartasuna aldatzeko egindako eskaera, xxxxxxxx oinordeko unibertsal den aldetik.

EBATZI DUT:

1.- xxxxxxxxxxxren alokairu hauen titulartasuna xxxxxxxxxxxxxren izenean transferitzea:



Aurizko
Udala
Ayuntamiento de
Auritz/Burguete

- *JAUREGIAROZTEGI-ESONDOA 19,23 Ha., 2. poligonoa, 27, 28 eta 29 lurzatiak eta 3. poligonoa, 107,110 eta 111 lurzatiak.*
- *OTSAMIETA 1,09 Ha., 2. poligonoa, 19. Lurzatiaren zati bat eta 3. poligonoa, 99. Lurzatiaren zati bat.*
- *AHARIEN BORDA, 2013ko otsailaren 7ko erabakiaren arabera.*

2.- Ebazpen hau hurrengo osoko bilkura arruntean berrestea.”

Ondoren, aho batez erabaki da 2026ko abenduaren 30eko 175 zenbakiko ebazpena berrestea eta onartzea. Ebazpen horren bidez, xxxxxxxxxxxxri transferitu zaio xxxxxxxxxxxxren errentamenduen titulartasuna.

Eta gai gehiagorik ez zegoenez gero, bilkurari bukaera eman zaio egun bereko 08:45ean, eta nik neuk akta idatzi eta fede eman dut.